

HUMANITARIOA-GARAPENA-BAKEA LOTURA HIRUKOITZEKO IKUSPEGIA ELANKIDETZAK FINANTZATUTAKO ESKU HARTZEETAN

LABURPEN EXEKUTIBOA

ALFREDO LANGA HERRERO
LUCÍA MATEOS JAQUETE

EGILEA:

FINANTZATZAILEA:

.iecah.

Instituto de Estudios sobre Conflictos y Acción Humanitaria
Institute of Studies on Conflicts and Humanitarian Action



LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD

Sarrera

Proposamen berrienetako bat da ekintza humanitarioaren, garapenaren eta bakearen eraikuntzaren (HDP, ingelesezko siglak direla eta) arteko lotura. Nazioarteko lankidetzaren erantzuna mundu mailako testuingurura egokitzea da proposamen horren helburua, gero eta krisi konplexuagoak eta luzeagoak agertzen diren honetan. Hori dela eta, ekintza humanitarioen, garapenerako ekintzen eta bakea eraikitzeke ekintzen arteko koherentzia, osagarritasuna eta koordinazioa lortu nahi du, elementu bakoitzaren printzipioak eta helburuak aintzat hartuta.

Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) Garapenerako Laguntzaren Batzordeak (GLB) dokumentu bat aurkeztu zuen 2021ean, lotura hirukoitza aplikatzeko gomendio eta printzipio batzuekin, lotura hirukoitzaren hiru elementuen eremuetan elkarlana, koherentzia eta osagarritasuna hobetze aldera. ELGAren GLBren arabera, honakoa lortu nahi da: “zaugarritasun orokorra eta ase gabeko beharren kopurua murriztea, arriskuak kudeatzeko gaitasuna indartzea eta arazoan atzean dauden arrazoiei heltzea”.

Lotura hirukoitzaren ikuspegia nahiko berria eta berritzailea da, eta, ondorioz, eraikitze-prozesuan dago. Horrek zailtasun operatiboak eragin ditzake ezartzeko orduan. Dena den, era berean, eztabaidatzeko eta esperientziak partekatzeko aukera handia da. Izan ere, erronkak eta abantailak ulertuta, testuinguruaren arabera modu eraginkorrean eta egokian aplikatzea bermatzen da. Aplikazio horretarako aukeretako bat honakoa da: gatazkarekiko sentikorrak diren tresnak eta metodologiak erabiltzea, esaterako, kalterik gabeko ekintza.

Hori dela eta, eLankidetzak-Lankidetzak eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren nazioarteko lankidetzan, 2018 eta 2023 artean finantzatzutako esku-hartzeetan, ikuspegi hori txertatu daitekeen aztertu nahi du azterlan honek. Duela gutxi, lotura hirukoitzaren gaineko ezagutzak partekatzeko prozesu batean parte hartu du eLankidetzak, erakunde eta pertsona adituen eskutik. eLankidetzak lotura hirukoitzaren ikuspegia ulertzeko eta hainbat jarduketa-eremutan txertatzeko duen interesa erakusten du horrek.

1. irudia. HDP lotura hirukoitzaren bateratzea.



Iturria: IECAH

Azterlanaren helburuak eta metodologia

Helburu nagusia: eLankidetzak finantzatutako esku-hartzeetan Humanitarioa-Garapena-Bakea lotura hirukoitzeko ikuspegia (HDP) txertatzeko aukerak, erronkak eta mugak aztertzea.

Bigarren mailako helburuak:

1. eLankidetzak 2018-2023 artean finantzatutako esku-hartzeetan HDP loturak izandako barneratze maila aztertzea.
2. eLankidetzak lotura hirukoitzeko lotura txertatzeko aplikatutako irizpideak aztertzea eta baloratzea, eta topatutako zailtasunak eta aukerak identifikatzea.
3. eLankidetzak finantzatutako etorkizuneko esku-hartzeetan HDP lotura hirukoitzaren integrazioa hobetzeko gomendio zehatzak eta proposamenak ematea.
4. HDP ikuspegiaren ezarpenean ikaskuntza eta elkarlana sustatzea, EAEko erakunde humanitarioei eta tokiko bazkideei zuzendutako egun bateko tailer baten bidez, azterlanaren emaitzak aurkezteko eta esperientzia praktikoez eztabaidatzeko.

Proposatutako metodologiari dagokionez, ikuspegi kualitatiboak eta kuantitatiboak konbinatu dira HDP loturak esparru estrategikoan eta eLankidetzak 2018 eta 2023 artean finantzatutako esku-hartzeetan duen barneratze maila aztertzeko. Barne hartzen du dokumentu garrantzitsuen berrikuspen sakona (plangintzaren araudi mailan, eta esku-hartzeen 57 espedienteren lagin bat). Esku-hartzeei dagokienez (estrategiak, proiektuak eta laguntza zuzenak), HDP loturaren elementuekin harreman handiena dutenak edo zuzenean gerra- edo indarkeria-testuinguruetan gauzatzen direnak aukeratu dira.

1. taula. Onartutako eta azterlan honetan aztertutako esku-hartzeen espedienteak (2018-2023).

Tresna	2018-2023 artean onartutako	Aztertutako espediente	Aztertutako espedienteen
PRO K1	320	11	% 3
PRO K3	122	5	% 4
PRE	118	25	% 21
EHE	23	10	% 43
ZUZ	104	6	% 6

Iturria: geuk egina, eLankidetzaren datuetatik abiatuta (atxikita daude funtsak eta memoriak)

Dokumentuak aztertzeko, galderak egin dira, ELGAren GLBren koordinazio-, koherentzia- eta osagarritasun-irizpideak kontuan hartuta; eta aintzat hartu da proiektuaren zikloa ere, esku-hartzeen kasuan. Halaber, eragile giltzarriak elkarriketatu dira, esperientziak eta pertzepzioak jasotzeko. Era berean, datuen analisi kuantitatiboa txertatu da, patroiak eta joerak identifikatzeko. Eta analisi kualitatibo sakona egin da, erronken, aukeren eta ikasitako lezioen gaineko informazioa ateratzeko. Modu horretan, lehen mailako eta bigarren mailako iturriak aztertuta, hainbat aurkikuntza egin dira eta hainbat ondorio identifikatu ahal izan dira. Horietan oinarrituta, gomendioak prestatu dira.

Ondorioak

ESPARRU ESTRATEGIKOA

- 1. eLankidetzaren nazioarteko lankidetzaren esparru legalak eta estrategikoak HDP loturaren elementuak dituzte, modu inplizituan, bai 3/2024 Legean, bai indarrean dagoen Plan Zuzentzailean.** Gainera, politiken koherentzia eta giza eskubideen eta bakearen eraikuntzaren arteko interrelazioa sustatzen dituzte bi dokumentuek. Koherentzia horrek araudi-oinarria eskaintzen du, etorkizunean HDP lotura errazago integratzeko. (Ikusi [1. gomendioa](#))
- 2. 2018-2026 aldirako Ekintza Humanitarioaren Estrategia da lotura hirukoitzarekiko lotura handienak dituen dokumentua.** Ekintza humanitarioak garapenarekin eta bakearen eraikuntzarekin lotuta egon behar duela zehazten du estrategia horrek. Gainera, estrategia horren ardatz nagusiek ere susta lezake aipatutako lotura, laguntza gatazka-testuinguruetara bideratuta, lokalizazioaren aldeko apustua eginda, EAEko biztanleak gai horien gainean edo lotura hirukoitzaren elementuen gainean sentsibilizatzen saiatuta eta eLankidetzak indartuta (beste eragile batzuekin ezagutzak eta eztabaidak partekatzea sustatuz). Hortaz, strategiaren egiturak esparru bat eskaintzen du, esku-hartze humanitarioak garapenarekin eta bakearekin lotutako egitasmoekin integratu ahal izateko. Baina integrazio hori, neurri handi batean, zeharkako ikuspegiaren mende eta hiru elementuak lotzeko borondatearen mende dago. (Ikusi [2. gomendioa](#))

DEIALDIAK ETA BAREMOAK

- 3. Garapenerako deialdietan, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza deialdietan (K1 eta K3) eta ekintza humanitarioko deialdietan (EHE eta PRE) modu inplizituan aipatzen da HDP lotura.** eLankidetzaren garapenerako lankidetzako plangintzen esparruarekin, (H)ABIAN 2030 estrategiarekin eta erakunde eskatzailearen eta tokiko bazkidearen plangintza estrategikoarekin koherenteak izatea eskatzen da deialdietan. Koherentziari ematen zaion garrantzia funtsezkoa da, baldin eta argi uzten bada koherentzia horrek lotura hirukoitzaren ikuspegi argia izan behar duela. (Ikusi [4. gomendioa](#))
- 4. Deialdietan esparru logikoaren ikuspegia aplikatzeko eskatzen da, eta halaxe aipatzen da baremazio-irizpideetan zehar. Hori aukera bat da gatazkarekiko sentikorrek diren tresnak txertatzeko, hala nola kalterik gabeko ekintzak.** Izan ere, aukera ematen du plangintzaren matrizea aldatzeko eta indarkeria-testuingurua kontuan hartzeko. Ekintza humanitarioko deialdiek hainbat irizpide barne hartzen dituzte, esku-hartzeen euren arriskuak aztertzeko eta arintzeko, eta kalterik ez eragiteko (adibidez, esku-hartzeetan harrerako biztanleak kontuan hartzea). Dena den, hori ez da gertatzen garapen-deialdietan. Halaber, bi deialdietan testuingurua aztertzea beharrezkoa den arren, ez da gatazkaren analisi sakonik eskatzen, esku-hartzearen diseinua harekiko sentikorra izan dadin. Hau da, ez da eskatzen plangintzaren matrizeko elementuak txertatu edo aldatzeko, arrisku-faktoreak arintze aldera. (Ikusi [8. gomendioa](#))
- 5. Deialdi guztietan, HDP loturaren aplikazioa erraz lezake zeharkako ikuspegiak.** Ikuspegi horiek hiru elementuen integrazioa susta lezake, zaurgarritasunen murrizketari, soluzio iraunkorrakoak bilatzeari eta bakea eraikitzeari heltzen dietelako. (Ikusi [5. gomendioa](#))

6. Aurrekontu-partiden malgutasun mailak mugatu egiten du lotura hirukoitzaren ezarpen eraginkorra. Ekintza humanitarioko deialdiak malgutasun handiagoa ahalbidetzen du aurrekontuak aldatzeko orduan, garapenerako lankidetzaren deialdiak baino. Gainera, estrategia humanitarioen modalitateak (EHE) aukera ematen du esku-hartze iraunkorrako diseinatzeko eta ezartzeko. Hala ere, baliabide gehiago behar dira, esku-hartze humanitarioak elkarrekin lotzeaz gain, lotura hirukoitzeko ikuspegiaren hiru elementuen artean aldibereko harremana ezar dadin. Halaber, laguntzen araudi-esparrua muga bat da gatazka-egoeretan martxan jarritako garapenerako proiektuetan elementu humanitarioak txertatzeko orduan; izan ere, testuinguru-aldaketetara azkar egokitzeko gaitasuna izan behar dute proiektu horiek. (Ikusi [3. gomendioa](#) eta [7. gomendioa](#))

7. Garapen-proiektuetarako eta ekintza humanitarioetarako deialdiek HDP loturaren elementu bakoitzarekin lan egiten duten erakundeek jardueren arteko koordinazioa, elkarlana eta osagarritasuna sustatu ditzakete, proiektuak partzuergoan aurkeztearen bidez. Proiektuak partzuergoan aurkezteko aukerak baliabideak optimizatzea ahalbidetu dezake, eta garapenerako, bakerako eta ekintza humanitarioetarako eragileek arteko elkarlana erraztu dezake. Dena den, lotura hirukoitzaren gaineko gidalerro espezifikorik ez egoteak mugatu egiten du elkarlan horren eraginkortasuna. (Ikusi [6. gomendioa](#))

8. Onuradunen eta agintari formal eta informalaren arteko elkarlana sustatzen dute deialdiek. Hori oso garrantzitsua da gatazka-testuinguruak ezagutzeko eta gatazkarekiko sentikortasunaren alderdi garrantzitsua da. Hortaz, elementu garrantzitsua da HDP lotura aintzat hartzeko. (Ikusi [6. gomendioa](#))

AZTERTUTAKO EKINTZA HUMANITARIOKO ESTRATEGIAK ETA PROIEKTUAK

9. Ekintza humanitarioko estrategia eta proiektu gehienek VARD ikuspegia dute txertatuta (ekintza humanitarioaren, berreraikitzearen eta garapenaren arteko lotura). Gatazkarekiko sentikorrak diren elementuak dituzten estrategiak ere identifikatu dira, kalterik gabeko ekintzenak. Kontsultatutako proiektu guztiek sakon aztertzen dituzte testuingurua eta gatazka, eta zatiketa edo tentsioa eragiten duten iturriak (indarkeria eragin dezaketen elementuak) nahiz kohesio-iturriak aipatzen dituzte (bakea lortzeko tokiko alderdiak eta gaitasunak). Mota horretako esku-hartzeak dira lotura hirukoitzeko elementuak gehien txertatzen dituztenak. Hori dela eta, ekintza humanitariotik lotura hirukoitza aplikatzeko joera dagoela ikusi da, *continuum* baten bidez. (Ikusi [4. gomendioa](#) eta [8. gomendioa](#))

10. Erakunde gehienak hainbat eragilerekin koordinatzen dira, hala nola tokiko eta estatu mailako agintariekin, NGKE-ekin, NBERen eta OCHAREN agentziekin, eta gizarte zibileko erakundeekin. Eragile horiek, nagusiki, lotuta daude ekintza humanitarioarekin edo garapenarekin; baina, era berean, bakea eraikitzen duten eragileekin koordinatzen direla ikusi da. (Ikusi [6. gomendioa](#))

11. Esku-hartze humanitario gehienek soluzio iraunkorrakoak sustatzen dituzten ekintzak gauzatzen dituzte, gaitasunak indartzearen, errefuxiatuak integratzearen eta komunitatea sortzearen bidez, beste batzuen artean. Bakeari dagokionez, hartara bideratutako ekintzak, batez ere, eskubideak babestean eta eskura izatean, eragin politikoan, testigantzak jasotzean eta sensibilizazioan oinarritzen dira. Bake-elementu gisa kohesio soziala lortzeko jarduerak ere egin dira hainbat testuingurutan.

Elementu horiek guztiek potentzial handia dute garapenerako egitasmoekin eta bakea eraikitzeke egitasmoekin lotzeko. (Ikusi [5. gomendioa](#))

AZTERTUTAKO GARAPENERAKO PROIEKTUAK ETA LAGUNTZA ZUZENAK

12. Hainbat eragilerekin koordinatzeko mekanismoak identifikatu dira proiektuetan; batez ere, garapenerako eta bakea eraikitzeke eragileekin koordinatzekoak. Izan ere, gatazka-testuinguruetan ezartzen dira aztertutako proiektuak. Ekintza horiek ezartzen dituzten erakundeekin erlazionatzen diren eragileen artean, esaterako, giza eskubideak babesten dituzten erakundeak, erakunde publikoak edo tokiko erakundeak nabarmentzen dira. Dena den, koordinazio hori ez da identifikatu eragile humanitarioen eta garapenerako eragileen eta/edo bakea eraikitzeke eragileen artean. (Ikusi [6. gomendioa](#))

13. Giza eskubideen ikuspegiak protagonismoa izan du aztertutako garapenerako proiektuen artean. Proiektu horietan, onuradunen babesa bilatzen da. Proiektuetako jarduerak honakoetan zentratu dira: gaitasunak indartzea, ahalduntzea, giza eskubideen defentsa, sentsibilizazioa eta integrazioa. Horretarako, eskubideen eta betebeharren titularrekin lan egin dute. Hori guztia, zaugarritasunak murrizteko, garapena sustatzeko eta bakea eraikitzeke helburuarekin. Gainera, indarkeriaren prebentzioa eta giza eskubideen eskuragarritasuna eta defentsa bermatzea izan dira aztertutako proiektu guztien helburuak. (Ikusi [5. gomendioa](#))

14. Gauzatutako garapenerako proiektuetan jarduketaren eta gatazkaren agertokia aztertu da. Horretarako, tentsio-elementuak eta kohesio-faktoreak identifikatu dira, gatazkaren egoera eta testuingurua azaltzeko. Dena den, horiek ez dira erabili gatazkarekiko sentikorrak diren emaitzak eta jarduerak diseinatzeke. (Ikusi [8. gomendioa](#))

15. Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen babesaren gainean EAEko herritarrak sentsibilizatzea da aztertutako gizarte-eraldaketarako hezkuntza-proiektu (K3) gehienen helburua. Bakar batek ere ez du aipatzen lotura hirukoitzaren ikuspegia aplikatzen duenik edo gatazkarekiko sentikorrak diren metodologiak erabiltzen dituenik, baina proiektu guztiek azpimarratzen dute epe luzera bakea eraiki behar dela, honakoen bidez: erakundeek babes-gaitan dituzten gaitasunak indartzea; eragin politikoko ekintzak; EAEko biztanleei zuzendutako komunikazio-ekintzak eta sentsibilizazio-ekintzak, biztanleria zaugarriaren eta krisiaren eraginpeko biztanleen egoeraren gainean. (Ikusi [5. gomendioa](#) eta [8. gomendioa](#))

16. Laguntza zuzenen (ZUZ) kasuan, “Kontzeptu-oharra” izeneko dokumentuaren bidez egin behar da eskaria; dokumentu hori laburragoa eta sinpleagoa da, eta ez du besteeke bezainbeste xehetasun behar. ZUZ laguntzek barne hartzen dituzte eragin politikoarekin lotutako jarduerak, giza eskubideen babesari, ikerketa- eta prestakuntza-egitasmoei, bakea eraikitzeke egitasmoei eta indarkeriak murrizteke egitasmoei dagokienez. Modalitate hau izan liteke lotura hirukoitza barne hartzen duten estrategiak planifikatzeko oinarria, formularioak ez duelako horrenbeste xehetasun eskatzen. (Ikusi [3. gomendioa](#))

Gomendioak

Ondorioetan oinarrituta prestatu ditugu honako gomendio hauek. Hala ere, estrategietan eta deialdietan hobetu beharreko alderdietan oinarritzen dira gomendioak, horien analisia eta aztertutako proiektuen eta egitasmoen analisia aintzat hartuta.

1. Plan Zuzentzailean lotura hirukoitzaren ikuspegia modu esplizituan txertatzea

Hurrengo Plan Zuzentzailea prestatzean, garrantzitsua izango litzateke HDP lotura modu esplizituan txertatzeko aukera aztertzea. Ez modu teorikoan bakarrik, baizik eta nazioarteko lankidetzaren eta bakearen eraikuntzaren arloan garrantzitsuak diren GKE-ekin eta erakunde publiko zein pribatuekin adostutako proposamen metodologiko baten bidez.

eLankidetzak lankidetzaren garatzen duen testuinguruetan gatazkek sortzen duten indarkeria eraldatzeko helburua duen ikuspegi gisa ulertu behar da HDP lotura. Horrek izan behar du garapenaren arloko ekintza guztien, ekintza humanitarioaren eta, noski, bakea eraikitzearen ekintzen helburua. Elementu bakoitzak bere printzipio eta helburu propioak izan behar ditu, baina xede komuna izan behar dute: ezarpen-testuinguruetako indarkeriak modu baketsuan eraldatzea.

Aldi berean, jarduketan agertokietan (EAEn edo handik kanpo) elkarrekin gurutzatzen diren, gainjartzen diren eta gainezartzen diren elementuen konbinazio gisa ulertu behar da lotura hirukoitza. Horretarako garrantzitsua da lokalizazioa sustatzea, IV. Plan Zuzentzaileak eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako 3/2024 Legeak dagoeneko aipatzen duten ikuspegi lokal-globalaren barruan.

2. Ekintza Humanitarioaren Estrategian lotura hirukoitzaren ikuspegia indartzea

Estrategiak aintzat hartzen ditu loturaren hiru elementuak, baina ikuspegia modu esplizituan txertatu beharko litzateke, eta posible izango litzateke ardatz espezifiko bat edo zeharkako ardatz bat HDP loturaren gainean garatzea. Hori lagungarria izan liteke ikuspegia indartzeko, betiere modu integralean eta inklusiboan eginez gero, eta “formularioaren beste atal bat” bilakatzea saihestuz.

4. ardatzari dagokionez, esperientziak eta ezagutzak partekatzea sustatzen jarraitu behar da, administrazioak, GKE-ek, tokiko bazkideek eta beste eragile garrantzitsu batzuek elkarrekin estrategia koherenteak eraiki ahal izateko, HDP loturarekin zerikusia dutenak.

3. Deialdiak kategorizazio berri batera egokitzea

Deialdiek ez litzukete HDP loturaren elementuak bereizi behar; inoiz ez ziratekeen bereizi beharko. Hori dela eta, deialdiak ez lirateke garapenerako egitasmoen eta egitasmo humanitarioen artean bereizi beharko; kategorizazioak beste irizpide batzuk izan beharko litzuzke, adibidez:

- Plangintza mailaren arabera deialdiak, honela banatuta: planak/programak/estrategiak eta proiektuak/esku-hartzeak, laguntza zuzenak izan zein ez. Horrela, egitasmo guztiek izango litzukete HDP loturaren elementuak, eta plangintza mailaren arabera bakarrik bereiziko lirateke. Gaur egun laguntza zuzenetan txertatzen den kontzeptu-oharraren dokumentua erabil liteke planen/programen/estrategien deialdietan, laguntza emateko prozesua errazagoa izan dadin eta hainbeste xehetasun behar ez izateko.
- HDP elementuak barne hartzen dituzten prestakuntzarako, ikerketarako eta ezagutzak

- Tokiko erakundeak indartzeko deialdiak, haien erantzuna hobetze aldera.

Aldaketa horiek egiteak dituen zailtasunak direla eta, epe ertain edo luzera egitea proposatzen da.

4. Deialdietan lotura hirukoitzaren ikuspegiaren koherentzia sustatzea

HDP loturaren ikuspegian, egitasmoak ez dira ekintza humanitariotik abiatzen, eta hortik garapenarekin eta bakearen eraikuntzarekin konektatzen. Loturako elementu guztiek garrantzi bera dute, eta jarduketaren testuinguruak zehaztu beharko luke zer jarduketa motak izango duen pisu handiagoa proiektu-proposamen bat prestatzeko orduan, indarkeria-agertokiaren arabera. Hori dela eta, lotura hirukoitzak proposatzen duen ikuspegi hirukoitza aplikatzeko beharra zehaztu beharko lukete deialdiek.

Proiektuak tokiko erakunde eskatzailearen plangintza estrategikoarekin edo Eusko Jaurlaritzaren plan sektorialekin lerrokatuta egon daitezen eskatzen jarrai dezakete baremazio-irizpideek, baita garapenerako nazioarteko agendaren barruan kokatua egon daitezen ere.

5. Lotura hirukoitzaren aplikazioa gidatuko duten alderdiak txertatzea

Aurreko gomendioarekin lotuta, deialdi guztiek (egungo garapeneko eta ekintza humanitarioko deialdiek edo azterlan honetan proposatzen direnek) izan beharko lituzkete erakunde eskatzaileei HDP loturaren elementuak txertatzea justifikatzen lagunduko dieten atalak. Hori, jarduketa-agertokiaren arabera eta erakundearen eta tokiko bazkideen gaitasunen arabera. Zeharkako ikuspegiak elementu erabilgarriak izaten jarraitzen dute zentzu horretan; batez ere, giza eskubideen, babesaren, testigantzaaren eta genero-berdintasunaren ikuspegiari dagokionez.

Genero-ikuspegiak neurri handiagoan hartu beharko lituzke kontuan emakumeek eta LGBTIQ+ kolektiboko kideek jasaten dituzten indarkeria kulturala eta egiturazko indarkeria (gizonak tartean sartzea, maskulinitate berriak sustatzea, sentsibilizazioa eta prebentzioa). Giza eskubideen ikuspegiari dagokionez, honek ere lehentasuna eman beharko lieke betebeharren titularrak gehiago nahasten dituzten jardueri, modu horretan, eskubideen titularrak indartzeak benetako eraginkortasuna izan dezan eta horien zaurgarritasun-egoera alda dadin. Orokorrean, apustu sendoagoa egin behar da komunitateetan inpaktu positiboak sortzea ahalbidetzen duten prebentzioko, bitartekaritzako, eragin politikoko eta kohesio sozialeko jardueren alde.

Hezkuntza-elementuak barne dituzten egitasmoetan (larrialdietan zein krisi kronikoetan), oso garrantzitsua da egitasmo horiek INEEK hezkuntzarako ezartzen dituen gutxieneko arauekin lerrokatuta egotea. Nolanahi ere, aintzat hartu beharko lituzkete gatazkarekiko sentikortasuna eta hezkuntzak gatazkak eraldatzeko elementu gisa duen funtzioa.

6. Koordinazioa eta osagarritasuna indartzea

Koordinazioari eta osagarritasunari dagokienez, HDP loturaren elementuak txertatzen dituzten erakundeekin partzuergoan egindako proiektuak aurkezteko laguntza ematea iradokitzen da. Era berean, modu positiboan baloratzen jarraitu beharko litzateke tokiko edo nazioarteko hainbat erakunderen planetan edo deialdietan egitasmoak integratzea, eta kluster humanitarioetan eta koordinazio-espazioetan parte hartzea.

Aldi berean, garrantzitsua da tokiko erakunde bazkideekiko, onuradunekiko eta testuinguruan esanguratsuak diren beste eragile batzuekiko laguntza eta elkarlana indartzea, horiek proiektuan parte hartzearen bidez. Eta garrantzitsua da agintari formalek eta informalek eta erakunde publiko eta pribatuak parte-hartzea sustatzea ere. Azken puntu horretan, oso garrantzitsua da onuradunek agintari horiei buruz duten pertzepzioa kontuan hartzea, eta ekintzak nolabaiteko efektu negatiboren bat (banaketari edo legitimazioari dagokienez) eragin lezakeen ere kontuan hartzea. Horretarako, garrantzitsua da jarduketetan parte hartzen duten eragileek artean ezagutzak parteka ditzaten sustatzen jarraitzea. Hala, tradizionalak ez diren lankidetzak-eragileak sar daitezke (zentro teknologikoak, enpresak, elkargo profesionalak edo gizarte-mugimenduak...).

7. Finantzaketa malgu eta estrategiko baten alde egitea

Aurrekontuaren eta justifikazioaren malgutasunak jarraitu egin behar du eta indartu egin behar da; batez ere, erakunde eskatzaileak beharra justifikatzen badu, ezarpenaren agertokiaren arabera.

Azterlan honetan, finantzaketa malguaren, aurreangarriaren eta helburu jakin batera bideratuta ez dagoen finantza-ketaren alde egiten dugu; programazio moldagarria ahalbidetzen du horrek. Hala, testuinguruan aldatutako bat gertatuko balitz, esku-hartzeak doitu daitezke, funtsak beharren arabera berriz ere esleituta. Modu horretan, elementu humanitarioen, garapeneko elementuen eta bakerako elementuen artikulazioa ahalbidetzen da.

8. Gatazkarekiko sentikorrak diren metodologiak txertatzea, hala nola kalterik gabeko ekintza

Deialdiek, gutxienez, plangintzarako metodologiak erabilera hartu behar dute barne. Metodologia horiek gatazkarekiko sentikorrak diren tresnak izan behar dituzte eta kontuan hartu behar dute gatazkaren eraldaketa-osagaia. Lotura hirukoitzeko elementuen pisuaren arabera, neurri handiagoan edo txikiagoan izan daiteke egingarria eraldaketaren alderdia nabarmentzea. Baremazio-irizpideen artean, baloratu egin beharko lirateke testuinguruaren analisia, arriskuen analisia eta kontuan hartu beharreko neurri gertagarriak. Laguntza zuzenei (ZUZ) dagokienez, horiek plangintza-dokumenturen bat izan beharko lukete, gutxienez gatazkarekiko sentikortasuna kontuan hartzen duena, HDP lotura txertatzeko alderdi gisa.

Gatazka-agertokiak deskribatzean, sakon identifikatu behar dira testuingurua, egiturazko arazoak eta testuinguru horretan esanguratsuak diren eragileak. Era berean, kontuan izan behar dira indarkeria eragin dezaketen faktoreak, eta bakea lortzeko tokiko gaitasunak hobe ditzaketen alderdiak aztertu behar dira. Zentzu horretan, oso positiboa izango litzateke HDP loturako eragileek arteko elkarlana. Tentsio- edo zatiketa-faktoreen eta kohesio-faktoreen analisiaren helburuak honakoa izan beharko luke: analisia jarduketan plangintzan eta proiektuaren ziklo osoan sartzea. Hala, faktore horiek eragina izan beharko lukete plangintzaren matrizearen barruko jardueretan edo emaitzetan. Era berean, jarduketak ezarpenaren testuinguruan izan dezakeen inpaktua identifikatu behar du arrisku-analisiak. Espero gabeko inpaktuen kasuan,

Jarduketan jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez, HDP lotura eta/edo gatazkarekiko sentikortasuna kontuan hartzen laguntzen duen alderdiren bat txertatu beharko litzateke jarraipen-dokumentuetan. Gainera, posible den heinean, desiragarria izango litzateke jarduketa bakoitzak ebaluazio bat izatea, jarduketek HDP loturaren elementuetan eta/edo gatazkarekiko sentikortasunean duten inpaktua baloratzeko, gutxienez.